

GAIIXO TRANPATIAK

PERTSONAIAK: Pertsonaiak gehitzeko edo gutxitzeko aukera ematen du.

. Kontalaria	. Itsua 2	. Mutua 1	. Herrena 2	. Medikua 1
.Tomas	. Gorra 1	. Mutua 2	. Herrena 1	. Medikua 2
. Itsua 1	. Gorra 2	. Besomotza 1	. Besomotza 2	. Telebista

Kontalaria: Bazen behin Tomas izeneko gizon bat. Orain aspaldi istorio xeibre bat pasatu omen zitzaion. Ezagutu nahi baldin baduzue geratu zaitezte adi adi zaudeten tokian...

Tomas: *(esku artean paper bat darama)* Ea behingoz aste honetan bonolotoko kinielarekin zortea dudan eta aberatsa egiten naizen. Teleberria ipiniko dut, ea esaten duen zeintzuk zenbaki atera diren.
(Telebista pizten du).

Telebista: Goazen orain Bonoloto kinielako zenbakiekin. Hauexek dira aste honetakoak: 18..... 44.....

(Telebistak zenbakiak esan ahala bere Bonolotoa errepasatzen doa. Telebistak zenbaki bakoitza esaten duenean Tomasek baiezko keinua egiten du, zenbakiak asmatzen baidoa).

Tomas: Ez dago batere gaizki orain arte. Ederki

Telebista: 31..... 2.....

Tomas: *(Geroz eta urduriago dago)* Bai jauna, segi horrela telebistatxo maitea.

Telebista: 24.....

Tomas: *(Belauniko jartzen da telebistaren aurrean)* Ezin dut sinestu, orain arte guztiak asmatu ditut. Ea azkeneko zenbakia.

Telebista: Eta azken zenbakia 27a da.

Tomas: *(Desilusio aurpegia jarriz)* Kaka zaharra! *(Kinielarekin pilota bat egin eta amorrazio handiarekin lurrera jaurtitzen du)* 27 madarikatu halakoa, kaka zaharra!

Telebista: Barkatu jaun andereak, baina Bonolotoko azken zenbakia esatean errakuntza bat izan dugu. Ez da 27a , 37a baizik. Adi, azken zenbakia 37a da.

Tomas: Nola? 37? *(arin arin lurretik paperezko pilota jaso eta zabaldu egiten du)* 37!!! Bai 37a!!! 37 maite zaitut!!!

Telebista: Esaten digutenez asmatzaile bakarra dago eta beraz bi milioi euroko saria berarentzat izango da.

Tomas: Hau poza! Abertsa naiz!

Kontalaria: Nahiz eta batzutan haserretu, Tomas bihotz oneko gizona zen, eta diru hura berarentzat gehiegi zela pentsatu ondoren, behar handia zuen norbaiti, tokatu zitzaionaren erdia ematea erabaki zuen. Berri hura zabaldu zenean jende ugari hurreratu zen Tomasen etxeraino.
Lehenengo eta behin bi itsu hurbildu ziren.

(Bi pertsona itsuz jantzita -bastoi betaurreko eta guzti-Tomasen etxera sartzen dira. Guztiarekin egiten dute estropezu, baita beraien artean ere).

Tomas: Egunon jaun andereak.

Itsua 1+2: Egunon.

Tomas: Konta iezadazue zer den gertatzen zaizuena.

Itsua 1: Ikus Dezakezun bezala guk ez dugu ezertxo ere ikusten, jaiotzatik itsuak gara eta.

Itsua 2: Orain bertan etorkizuna oso beltz ikusten dugu.

- Tomas: Eta zergatik eman beharko nizueke zuei dirua?
- Itsua 1: Nik oso argi ikusten dut. Diru horrekin begien transplantea egiten duen operazio bat ordainduko genuke.
- Tomas: *(Pentsakor gelditzen da une batez)* Ongi da. Konbentzitu nauzue. Dirua zuei emango dizuet.
- Itsua 2: Eskerrik asko Jauna. Argi ikusten dugu bihotz onekoa zarela. Ez duzu aurkituko guk baino behar handiagoa duenik.
- Tomas: *(Etxean hiru kutxa daude, bakoitza kolore batekoa)* Tira ba, dirua kutxa berde horretan dago gordeta. Har ezazue zuek, Ni presaka nabil eta joan beharra dut.
(Irten egiten da, baina joan beharrean ate atzean ezkutatuta gelditzen da).

(Itsuak betaurreko beltzak kendu, bastoia bota eta zuzen zuzen kutxa berdera abiatzen dira).
- Itsua 1: Kutxa berdean esan du ezta?
- Itsua 2: Bai berdean. Zein erreza izan den mozolo horri iruzur egitea.
- Itsua 1: Aizu kutxa honetan ez dago ezer.
- Itsua 2: Nola ez dagoela ezer!

(Tomas gordelekutik makila handi batekin ateratzen da).
- Tomas: Baina zuek ez zineten itsuak?
- Itsua 1: Eeeee, bai itsuak.
- Tomas: Eta ez baduzue ezer ikusten nola joan zarete zuzen zuzen kutxa berdera? Alde hemendik tranpati halakoak. *(Makilarekin beraien atzetik korrika hasten da)*
- Itsuak 1+2: aaaaah..... aii...aiii....

Kontalaria: Eskarmentu ederra hartu zuten itsu tranpati haiek. Ondoren beste bi pertsona sartu ziren. Gorrak zirela zioten.

(Gor biak Tomasen etxean bere zai daude. Leihotik begira ari dira)

Tomas: *(Gelara sartzen denean, gor biak leihotik begira ari direnez Tomasi bizkarra ematen diote) Egunon... (ez du erantzunik jasotzen) Egunon. .. (berriro ere ez du erantzunik jasotzen) Egunon. (Ozenki esanez).*

Gorra 1: Zerbait entzun dudala uste dut.

Tomas: *(ahalik eta ozenkien) Egunon!!!*

Gorra 2: Ah, egunon. Barkatu jauna, leihotik begira ari ginen eta zerbait entzun dugula iruditu zaigu.

Tomas: Zerbait entzun? Garrasika ibili naiz ba. Ea kontatu ieza dazue zer pasatzen zaizuen.

Gorra 1: *(eskua belarrira eramanez) eh? Hitz egin ezazu pixka bat altuago mesedez.*

Tomas: *(ozenkiago) Kontatzeko zer pasatzen zaizuen.*

Gorra 2: *(eskua belarrira eramanez) eh? Ez dugu ezer entzuten. Hitz egin piska bat ozenago.*

Tomas: *(garrasika) Zer den pasatzen zaizuen!*

Gorra 1: Zein den pastelik gozoena? Niri gehien gustatzen zaidana, txokolatzeko palmera da.

Tomas: Ez, ez, hori ez. Kontatu zein den zuen arazoa.

Gorra 2: eh? Ez dut entzuten, hitz egin ozenago.

Tomas: *(ozenki) Kontatzeko zuen arazoa. Arazo bat!*

Gorra 1: Marrazo bat? Non? Hau beldurra.*(korrika hasten dira gor biak).*

Tomas: Ez dago marrazorik! Ea apur bat lasaitzen garen. Zertara etorri zarete hona?

Gorra 2: Zein den nire aitona? Josemi du izena, 83 urte dauzka eta...

Tomas: *(Ozenki)* Nahiko da! Nahiko da!

Gorra 1: Jauna ez diguzenez galdetzen zertarako behar dugun dirua, zuzenean azalduko dizugu.

Gorra 2: Jaiotzatik gorrak gara, eta ia ia ez dugu ezer entzuten. Diru horrekin ospitalean medikurik onenekin operazio bat egingo genuke gure gaixotasuna sendatzeko, baina horretarako diru asko behar dugu.

Tomas: *(Pentsakor gelditzen da une batez, ondoren baxu hitz eginez...)* Ongi da. Konbentzitu nauzue. Dirua zuei emango dizuet. Kutxa berde horretan dago gordeta. Har ezazue zuek, Ni presaka nabil eta joan beharra dut.
(Irten egiten da, baina joan beharrean ate atzean ezkutatuta gelditzen da).

Gorra 1: Kutxa berdean esan du ezta?

Gorra 2: Bai berdean. Zein erreza izan den mozolo horri iruzur egitea.

Gorra 1: Aizu kutxa honetan ez dago ezer.

Gorra 2: Nola ez dagoela ezer!

(Tomas gordelekuetik makila handi batekin ateratzen da).

Tomas: Baina zuek ez zineten gorrak?

Gorra 1: Eeeee, bai gorrak ez dugu ezer entzuten.

Tomas: Orduan nola joan zarete zuzen zuzen kutxa berdera oso oso baxu hitz egin badizuet? Alde hemendik tranpati halakoak !!!
(Makilarekin beraien atzetik korrika hasten da)

Gorrak 1+2: aaaaah..... aii...aiii....

Kontalaria: Eskarmentu ederra hartu zuten gor tranpati haiek. Ondoren beste bi pertsona xeblebre sartu ziren.

Tomas: Egunon jaunak. Konta ieza dazue zein den zuen arazoa.

Mutua 1: mmmmm.... mmmmm... mmmm

Tomas: Ez dut ezer ulertzen.

Mutua 2: mmmmm.... mmmmm... mmmm *(Keinuen bidez hitzik ezin dutela egin azaltzen dio, mutuak direla)*

Tomas: Orain ulertu dut. Ezin duzue hitzik egin mutuak zaretelako.
(Mutu biak buruarekin baietz diote) Eta zer egingo zenukete diruarekin?

Mutua 1+2: *(Keinuak egiten hasten dira. Bat lurrean etzan da eta bestea medikuaren papera eginez operazio bat antzezten dute. Azkenik atzamarrekin diru askoren keinua egiten dute)*

Tomas: Ulertu dudala uste dut. Gortasuna osatzen duen operazio bat egin nahi duzue, eta operazio horrek diru asko balio du.
(Mutu biak buruarekin baietz diote). (Pentsakor gelditzen da une batez) Ongi da. Konbentzitu nauzue. Dirua zuei emango dizuet. Kutxa berde horretan dago gordeta. Har ezazue zuek, Ni presaka nabil eta joan beharra dut.
(Irten egiten da, baina joan beharrean ate atzean ezkutatuta gelditzen da).

Mutua 1: Kutxa berdean esan du ezta?

Mutua 2: Bai berdean. Zein erreza izan den mozolo horri iruzur egitea.

Mutua 1: Aizu kutxa honetan ez dago ezer.

Mutua 2: Nola ez dagoela ezer!

(Tomas gordelekutik makila handi batekin ateratzen da).

Tomas: Baina zuek ez zineten mutuak?

Mutua 1: Eeeee, bai bai, mutuak gara.

Mutua 2: Hitz bat bera ere esateko ez gara gai *(hanka sartu dutela konturatzean, mutuek bat batean eskuekin ahoa estaltzen dute)*

Tomas: Alde hemendik tranpati halakoak !!! *(Makilarekin beraien atzetik korrika hasten da)*

Mutuak 1+2: aaaaah..... aii...aiii.... *(korrika ihes egiten dute).*

Kontalaria: Ondoren besorik ez zuten pertsona bi joan zitzaizkion Tomasi.

Tomas: Egunon jaunak, kontatu ieza dazue zein den zuen arazoa.

Besomotz1: Begi bistan dago gertatzen zaiguna. Besorik gabe jaio ginen eta pena handia dugu horregatik.

Tomas: Eta zer egingo zenukete diruarekin?

Besomotz2: Gaur egun beso eta esku inteligentek birjartzen dituzte, baina oso garestiak dira. Horretan erabiliko genuke dirua.

Besomotz1: Nire ametsik handiena pilotaria izatea da.

Besomotz2: Eta nirea Malabarista izatea.

Tomas: *(Une batez pentsakor gelditzen da).* Ongi da, konbentzitu nauzue. Dirua zuei emango dizuet. Kutxa berde horretan dago gordeta. Har ezazue zuek, Ni presaka nabil eta joan beharra dut.

(Irten egiten da, baina joan beharrean ate atzean ezkutatuta gelditzen da).

Besomotz1: *(Besoak jertse barrutik atera eta mahuketatik sartzen ditu, baita bere lagunak ere)* Kutxa berdean esan du ezta?

Besomotz2: Bai berdean. Zein erreza izan den mozolo horri iruzur egitea.

Besomotz1: Aizu kutxa honetan ez dago ezer.

Besomotz2: Nola ez dagoela ezer!

(Tomas gordelekutik makila handi batekin ateratzen da).

Tomas: Baina zuek ez zineten besomotzak? Alde hemendik tranpati halakoak !!! *(Makilarekin beraien atzetik korrika hasten da).*

Besomotz1+2: aaaaah..... aii...aiii.... *(korrika ihes egiten dute).*

Kontalaria: Besomotz haiek ere eskarmentu ederra hartu zuten. Ondoren makuluekin zihoazen bi pertsona etorri ziren.

Tomas: Egunon jaunak konta ieza dazue zein den zuen arazoa.

Herrena 1: Begi bistan dago gertatzen zaiguna. Jaiotzatik herrenak gara eta pena handia dugu horregatik.

Tomas: Eta zer egingo zenukete diru horrekin?

Herrena 2: Hanka artifizialak erosiko genituzke eta medikurik onenei esango genieke ipintzeko.

Tomas: *(Une batez pentsakor gelditzen da).* Ongi da, konbentzitu nauzue. Dirua zuei emango dizuet. Kutxa berde horretan dago gordeta. Har ezazue zuek, Ni presaka nabil eta joan beharra dut.
(Irten egiten da, baina joan beharrean ate atzean ezkutatuta gelditzen da).

Herrena 1: *(Makuluak lurrean uzten ditu eta korrika kutxa berdera abiatzen da)* Kutxa berdean esan du ezta?

Herrena 2: Bai berdean. Zein erreza izan den mozolo horri iruzur egitea.

Herrena 1: Aizu kutxa honetan ez dago ezer.

Herrena 2: Nola ez dagoela ezer!

(Tomas gordelekutik makila handi batekin ateratzen da).

Tomas: Baina zuek ez zineten herrenak? Alde hemendik tranpati halakoak !!! *(Makilarekin beraien atzetik korrika hasten da).*

Herrenak 1+2: aaaaah..... aii...aiii.... *(korrika ihes egiten dute).*

Kontalaria: Korrikalaririk hoberenak baino arinago egin zuten korrika herren haiek. Azkenik beste bi pertsona hurbildu ziren Tomasen etxera.

Tomas: Egunon jaunak. Zuek ez zarete itsuak izango, ezta?

Medikua 1: Ez, Ez.

Tomas: Ezta gorrak ere.

Medikua 2: Ederki entzuten dugu.

Tomas: Mutuak?

Medikua 1: Jauna, mesedez....

Tomas: Besomotzak, ez noski.

Medikua 2: *(Besoekin harritutako keinua egiten du).*

Tomas: Herrenak akaso?

Medikua 1: Begi bistan dago ez garela herrenak.

Tomas: Orduan, zertarako behar duzue dirua?

Medikua 2: Gu medikuak gara, eta gezurretako gaixo asko diru eske etorri zaizkizula jakin izan dugu. Guk benetako gaixoak sendatu nahi ditugu.

Tomas: *(Une batez pentsakor gelditzen da)*. Ongi da, konbentzitu nauzue. Dirua zuei emango dizuet. Kutxa berde horretan dago...

Medikua 1: Ez jauna, guk ez dugu dirurik nahi.

Medikua 2: Zuk zeuk ospitale bat eraikitzea da eskatzen dizuguna.

Tomas: Argi dago bihotz onekoak zaretela, eta eskatzen duzuen zuzena dela. Hala bedi, diruarekin ospitale bat eraikiko dut.

Kontalaria: Esan eta egin. Tomasek ospitale bat eraiki zuen non benetako gaixoak osatzen zituzten.

Hala bazan
Ez bazan
Sar dadila kalabazan
Eta irten dadila
Santutxuko plazan

Egilea: Iñaki Aldai
Karmelo Ikastola